

Nacionalista Vasco, comenzamos por una acción concertada y solidaria que en este momento es viable; será un paso fundamental para que el Gobierno de Euzkadi llegue a ser la institución por la que se hagan presentes los vascos de todas las tendencias que están dispuestas a dar los últimos pasos de la lucha por la libertad.

APAIZAK, EUSKAL-MARTIRI

JOXE Itzaltsu

Gure erriak daraman Gurutz-Bidea, ezta samurra. Beren askatasuna ta bizi-aukera, merkeegi salduta, iñoren odollik ixuri gabe, or ditugu aibat errukarri, urte luzetarako katepean sartuta. Bitartean, gurasoren bat il zaie ta il-zorian zeukaten aita edo ama ikusteko, eragozpen aundiak sortu zaizkie. Ala il zitzaion, pare bat urte dala, bere aita Amuriza apaizari. Oraintsu, Kaltzada Julian apaizari, beronen ama il zaio; ta azkenik, Gabikagojeaskoa' tar Alberto apaizari, aita il zaio. Irurei, il-zorian zeukaten gurasoa ikusteko, berdin-samarreko eragozpenak jarri dizkiete. Guk emen, kartzelan ditugun abade jator oiek aaztu ez dakizkigun, Gabika adiskidearen gertaerak zabaldu nai genituzke.

Alberto'k bere ama Primitiba izenekoa du ta aita Joxe izenekoa.

Bederatzi seme-alaba izan dituzte, eta joan dan Maiatzean, gure apaiz errukarriari, bere aita il-zorian jarri zitzaion. Il baño len aita ikustea itxura zala-ta, aitaren gaitz ori benetakoa ote-zan jakiten, or

ibilli ziran agintariak. Ala zala, ba, ta aita ikusteko ordubeteko epe laburra emanaz, or daramate seme apaiza Lekeitio'ra. Semea etxera orduko, aita zerraldo otzean sartua zuten. Eldu da seme mindua aitaren gorputz-aurrera, ta jarri zaio ildakoari belauniko izketan. Semearen itzak, biotza urratzekoak benetan. Erri osoa apaiza besarkatu nairik, alkarri bultzaka. Polizia alboan lotsatuta.

Apaizaren arreba bat mariñel batekin ezkondua ta mundu asko ikusia. Arek eraso zion poliziari, esanaz:

— Zuek, an Zamora'n, nere anai au gaiztotzat joko dezue; baiña emen, ezagutzen duten erritarrak nolako arrera egin dioten, ikusi dezu.

Poliziak erantzun omen zion: « Egia esaten dizut, nere lekuan baño zure anaiaren lekuan egotea, naiago nukela. »

Arrebak ostera: « Orduan, beronen esku-muturreko burriak, zergatik ez dizkiotzu gijajoari kentzen? »

Eta poliziak erantzun: « Ez didazu sinistuko, baiña lotura oiek askatzeko giltzarik ez ditate eman. »

Aita, Maiatzaren 28'an il zan,
eta illetak, urrengo egunean,
Maiatzaren 29'an egin zizkio-
ten. Ordubeteko epea bete za-
nean, apaiza erriari agurka, ta
erri guzia sutan, apaizari go-
raka ta txaloka ta « Gora Euz-
kadi ! » oiuka. Orra gertatua.
Gure erriak kontu auek gogo-
an izan ditzan beti, emen di-
joazkitzue bertso batzuek.

Apaiza Lekeitio'n egon zan
bitartean, guda-ontzi bat itxa-
soan Lekeitio-aurrean egon

zan, eta erri osoa guardiz in-
guratua euki zuten. Eragabe-
keri auek ikusirik, ez gaitzen
kartzeletako gure anai-arrebei
laguntzen aspertu.

Bertso auen doiñua, Xenpe-
lar sonatuak Berriotxo done-
aren bizitza kontatzeko artu
zuana, alako bertso aietan :
« Aita ta ama Bizkaian daude,
semea il da gaixoa... » Ikasi ta
kanta zazpi Euzkalerrietan, gu-
re jendeak egun garratz auek
gogoan artu ditzan.

GABIKAGOJEASKOA'TAR ALBERTO

APAIZ ETA EUSKAL-MARTIRI

1

Seme apaiza kartzelan dute,
Zamora'n urte luzetan;
Lekeitio'ko errian dago
aita azken-arnasetan.

2

Aitarengana utzi diote
etortzen abadeari;
esku-muturrak katiatuak
utzirik, ain lotsagarri.

3

Aita zerraldo otzean dago
semea etortzerako;
aitaren gorputz-aurrean jarri
da semea belauniko.

4

Alberto, seme errukarria,
asi da aitari izketan;
ingurukoak, ari entzunda,
urtu dira negarretan.

5

Nork esan ango negar-zotiñen
biotz-intziri samiñak?
Nork neurtu ango jende onaren
malko agortu eziñak?

6

Erri osoa sutan jarri da,
apaiza laztandu nairik;
polizi bera lotsatan dago
arrera ura ikusirik.

7

« Naiago nuke — esaten dio
apaizaren arrebari —
lotura oiek kendu lenbailen
zure anai minduari. »

8

« Baiña sinistu zaidazu, arren,
— naiz gauza gogorra izan —
loturak aska al izateko
giltzarik ez didate eman. »

ALDERDI

9

Erri guziak beso-zabalik
artzen du apaiz zintzoa,
itxaropenez gozatu nairik
aren barruko giroa.

10

Ordubeteko epea izan du
apaizak aita ikusteko;
besterik gabe eraman dute
giltzapean usteltzeko.

11

Katetan dauden gure anaiak,
gogora ditzagun beti;
Euskalerriko sua pizteko
oiek ditugu illeti.

12

Gabikagojeaskoa degu
Euskalerriko martiri.
Apaiz jatorrak ar beza gure
esker onaren agiri!

Con el Concilio hemos topado

Jon Elizalde

El escritor francés Edmond Rostand tiene un pequeño poema muy sugestivo, titulado : « Le Contrebandier » (El Contrabandista).

El protagonista del poema es un hombre alto y enjuto que, disfrazado de casero y con un burro cargado, intenta repetidas veces cruzar la frontera francesa, partiendo desde la vertiente ibérica. El consabido arriero tiene invariablemente mala suerte. Tropieza por cierto con guardias franceses nada feroces, sino más bien bonachones, que se contentan con hacerle la pregunta de rigor : « ¿ Tiene algo que declarar ? » La respuesta la da negativa. Y los guardias le dejan pasar sin más : ¡ Tiene tan mala pinta el pobre ! ¿ A quién se le ocurriría registrarle ?

Pero surge siempre algún contratiempo. El jamelgo tiene la mala suerte de tropezar en algún obstáculo, o bien la carga no está bien asegurada ! A lo que es la carga viene al suelo con cierto ruido de armas, ante la mirada de los benévulos aduaneros franceses, armas extemporáneas por cierto : yelmo,

escudo, lanza y coraza de los caballeros medievales. Aunque no hubiera entonces ninguna Comisión internacional de No-intervención, las armas son materia de contrabando. Los guardias tienen también sus escrúpulos : « Contrabando », dictaminan. Pero en atención a su edad avanzada y a su aspecto menesteroso, — los aduaneros franceses son buenos padres de familia — le dejan cargar nuevamente su mercancía y emprender cabizbajo y abrumado el camino de regreso a su punto de partida.

El contrabandista no es otro que el Caballero cervantino de la Triste Figura que trata de llevar a cabo con tozudez su intentona centenaria de franquear la frontera francesa. Intento vano. La lección del poema es simplemente que las hazañas de los caballeros andantes son propias de las cabezas calenturientas de los carpetovetónicos ; pero no tienen entrada posible en el País de la Razón pura y de las ideas claras de Descartes.

..